

**DEBAGOIENEAN BURUTU ASMO DEN DELIBERAZIO EGITASMO
ORDEZKATZAILEKO PARTAIDETZA PROZESUAREN BAITAN,
KOMUNIKAZIORAKO KANPO LAGUNTZA ZERBITZUAREN
KONTRATAZIOA
– HASIERA ETA GONBIDAPENERAKO TXOSTENA**

1. Kontratuaren xedea

Debagoienako Udalek eta eragileek, lankidetzazko gobernantza eratzea adostu dute Debagoienan deliberazio prozesua abiatzeko eta bultzatzeko.

Ordutik hona, prozesua bera finkatzen eta diseinatzen eta, aurrera eramateko bideak lantzen aritu da bertatik sortutako organoa.

Prozesua aurrera eramateko baldintzetan zehazten den bezala, Gizabidea Fundazioari dagokio, besteak beste, egitasmoa aurrera eraman ahal izateko deliberazioaren zuzendaritza teknikoa eta horren barruan, prozesuan burutuko den komunikazio lanak kontratatzea.

Kontratu honen objektua edo xedea da, beraz, Debagoienako deliberazio prozesuaren baitan, komunikazio estrategia diseinatzea, bere planifikazioa, gauzatze eta antolaketa lanak egitea baldintza plegu honetan jasotzen denarekin bat etorritz.

2. Kontratazioaren testuingurua

2023ko udazkenean, eskualdeko erakunde eta eragileen artean, energia trantsizioaren inguruko deliberazio prozesua abiatzeko lanketa garatu zen arrazoi hauek oinarri:

- Energia eskualdearen etorkizuneko bizigarritasunaren oinarri bat delako: garapen ekonomikoa, lurralde antolamendua eta oreka, herritarren bizi baldintzak...
- Arlo ezberdinetako eragile eta herritarrei eragiten dielako: administrazioak, enpresak, lehen sektorea, herritarrak...
- Eskualdearen etorkizuna baldintzatuko duten erabaki estrategikoak hartu behar diren momentu historiko baten gaudelako.
- Elkarrizketa eta lanketa hori bideratzeko "Deliberazio prozesua" tresna egokia izan daitekeelako.

Debagoienan prozesu deliberatiboa garatzea adostu eta, honela definitu zen:

“Prozesu deliberatiboa eskualdeko eragile publiko, pribatu, komunitario, eta orohar, herritarrekin energia trantsizioaren inguruan burutuko den prozesua izango da. Gaiari dagokion informazio zehatz eta egokitik abiatuta Debagoienan gertatu behar den trantsizio energetikoaren aukera ezberdinak aztertu eta ebaluatzea izango duelarik oinarri.”

Proposatzen zen prozesu deliberatiboak bazuen bereizgarri bat beste prozesuekiko ezberdintzen zituena: prozesua lankidetzazko gobernantzatik bultzatzea proposatzen zen, arazo konplexu bati lankidetzaz publiko-pribatu-komunitarioaren bidetik erantzuna emateko xedez. Bide horretan, prozesuaren bultzatzailea ez zen eremu publikoa soilik izango.

Adostutakoa honakoa izan da:

Deliberazio prozesuaren Helburuak:

- . Energiaren alorrean helburu amankomunak ezartzea kontsentsu zabalaren bitartez, eta egiteko modu berri bat abiatzea.
- . Debagoienako eskualdean herritar eta eragileak ahalduntzea, energiaren aferan beren ardurak hartuz.

Prozesu deliberatiboak hiru fase izango ditu: lehen fasean, eskualdea osatzen duten eragileek mahai sektorialak eratuko dituzte, dilema kontuan hartuz euren posizionamendua eta jarrera jasotzeko; bigarren fasearen erdigunean herritarren batzarra dago. Bertan, ausaz hautatutako herritarrek, galderari erantzungo dion gomendio sorta bat adostuko dute; eta azken fasean, mandatua burutu duten eragileek, gomendioak aztertu, haien inguruan deliberatu eta erantzuna emango diote.

Deliberazio prozesuaren erdigunean, Herritarren Batzarra dago. Herritarren Batzar horretan, ausaz aukeratutako eskualdeko 50 herritarrek parte hartuko dute eta prozesuaren gobernu organoak erabakitako galderari gomendioak ematea izango da bere egiteko nagusia. Era berean, gomendioei jarraipena eta erantzuna ematera konprometitzen da prozesuaren organo gorenak.

Herritarren Batzarraren egitekoa hiru fasetan burutuko da: informazio fasea, deliberazioa edota gogoeta eta, gomendioak osatzea.

Adostutako dilema honakoa izan da:

*“Debagoiena **energia kontsumo handiko eskualdea** da, besteak beste **ehun industrialak eskualdean duen garrantziarengatik** eta **bizi ereduarengatik**. Dagoeneko eraldaketa energetiko, ekologiko, sozial eta ekonomikoa gertatzen ari da. Debagoienako eskualdeak garapen eredu iraunkor baterako bidea bultzatu beharko du, eta horrek **kontsumo energetikoa gutxitzea** eta **energia berriztagarrien garapena** ekartzen du.*

*Baina kontsumo energetikoa gutxitzeak **ehun industrialak murriztu dezake** eta **bizi baldintza eta ereduak eraldatu**. Era berean, energia berriztagarrien **eskala handiko proiektuen garapenak biodibertsitatean eta landalurrean eragin dezake**. Horren ondorioz, **kontsumo energetikoaren murrizketa** eta eskualdean **energia berriztagarriak zein mailatan** garatu beharko liratekeen definitu beharko da, alegia, eskualdeak izango duen **dependentsia energetiko maila**.*

*Halaber, eraldaketa hau egiteko moduak **desorekak** areagotu ditzake pertsona, erakunde, herri eta lurralde ezberdinen artean.”*

Prozesu deliberatiboaren galdera honakoa izatea adostu da:

“Zein ekintza edo aldaketa burutu beharko dituzte Debagoienako tokiko eragileek energia kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarrien garapenerako?”

Prozesu deliberatiboaren izaera:

Aipatutako adostasunez gain, prozesuak izan beharko lituzkeen baldintzak eta gobernantza eredua ere adostu dira. Lankidetzazko gobernantza eredu honek izaera publiko-pribatu-komunitarioari eman nahi dio erantzuna, alegia, prozesu honek izan nahi duen bereizgarritasunari. Beraz, prozesu deliberatiboaren bultzatzaileak izaera ezberdineko erakundeak izango dira. Zentzu horretan, eta aipatutako dilema eta galdera oinarri hartuta, prozesu deliberatiboaren mandatugile bihurtzeko konpromisoa hartzen dute. Ondorioz, mandatugileak izango dira bai dilema eta galdera proposatuko dutenak, eta baita prozesu honetatik erator daitezkeen gomendioei erantzuna emango dietenak ere.

Deliberazio prozesuak antolaketa eredu eta organo hauek izango ditu:

- Mandatugile gunea: Gune hau izango da deliberazio prozesuaren gobernantza sistemaren erabakigune nagusia.
- Jarraipen batzordea: Mandatu organoen ordezkarietatik sortutako gune operatiboa.
- Talde sustatzailea edo bulego teknikoa eta azpitaldeak:
 - Metodologia taldea: Eragileen gune desberdinak eta, Herritarren Batzarraren diseinu metodologiko eta dinamizazioa egiteko proposamena eta ardura izango du.
 - Edukien batzordea: Herritarren batzordeak jasotzen duen informazioa osatzeko eta herritarren batzarrean egongo diren hitzaldiak antolatzeko ardura izango du.
 - Komunikazio taldea edo batzordea: Prozesua gizarteratzeko komunikazio estrategia eta plana diseinatu eta egikaritzaz arduratuko da.
 - Ebaluazio eta ikerketa taldea: Bere egitekoa prozesuaren ebaluaziorako adierazleak zehaztea, ikasketak sortzea eta sistematizatzea eta, prozesuaren bermeak errespetatzen direla ziurtatzea izango da.
- Aholku batzordea: deliberazio prozesuan esperientzia duten erakundeek osatuko dute batzorde hau.

3. Kontratazioaren funtsa eta egitekoak

3.1. Zerbitzuaren funtsa

Testuinguru horretan, komunikaziorako kontratatu nahi den zerbitzuak, diseinatu eta inplementatu beharko du deliberazio-prozesua eta bere helburuak modu egokian bideratu ahal izateko komunikazio plangintza, ondo definituz zeintzuk izango diren

plangintza horien komunikazio estrategiak prozesua hasi aurretik, bitartean eta ondoren, hartu beharreko neurriak eta erabiliko diren baliabide desberdinak, hori guztia kronologikoki ondo zehaztuta.

Prozesuaren faseak kontuan hartuz eta komunikazioari dagokionez, funtzio eta eginkizun hauek bete beharko dira eta beti ere zuzendaritza teknikoaren gidaritzapean.

3.2. Zerbitzuaren egitekoak

1. Marka eta komunikazio instituzionalaren definizioa.
2. Prozesuaren berri emateko, prozesuaren narratiba eta errelatoa sortzea.
3. Dibulgazio-bidea kudeatzea, funtsezko informazioa eta pertsona zein erakunde interesdunak prozesuaren etapa zehaztetan. Bereziki ere baloratuko da prozesuaren narrazio eta kontakizuna azaltzeko, eta bera ulertzeko ondo identifikatzea: prozesuan parte hartzen duen hainbat rol, kontakizunean rol bakoitzari esleituko zaion posizioa eta horretarako erabiliko diren tresnak.
4. Prozesuaren funtsezko eta partekatu beharreko informazioa deskribatzen dituzten dokumentu zein bestelako euskarrien prestaketa eta zabalkunde bide eta euskarriak. Horien artean, prozesuaren amaieran, emaitzaren dibulgaziorako diseinu proposamena eta kudeaketa.
5. Web orria sortzea eta elikatzea gobernantzaren, hautapenaren eta prozesuaren beste elementu batzuen xehetasunak azaltzeko, bereziki, prozesuaren gardentasunaren ebidentzia gisa. Web guneko atari irekirako proposamena zehatza egitea eta kudeatzea, parte hartze publikoa sustatzeko eta, jendearen eta interes-taldearen ideiak partekatzeko.
6. Komunikabideak zein bestelako interes taldeak komunikazio estrategietan txertatzeko planteamendua. Komunikabideentzako informazioa prestatzea, egiteko nagusiak identifikatzea, bidean zehar une interesgarriak nabarmenduz.
7. Antolatzea Herritarren Batzarra garapenari buruzko komunikazioak. Definitu beharko dira egunean bertan proposatutako zuzeneko aktiboak: bertan parte hartzen dutenen testigantzak (parte hartzaileak, batzordekideak, behatzaileak...), social mediaren erabilera...oro har batzarraren kobertura egiteko bide eta estrategiak, protagonismoa emanaz social media erabilerari eta hartzaileen irisgarritasunari.
8. Herritarren parte hartze irekirako proposamena eta kudeaketa.

Zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak, modu zehatz batean eta jarraian azaltzen diren irizpideen arabera garatu beharko ditu zerbitzuak. Zehar-lerroak zerbitzuaren fase guztietan landuko dira. Genero berdintasuna, aniztasuna eta euskararen erabilera dira zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak.

Genero-berdintasuna:

Genero ikuspegia txertatu beharko da zerbitzuaren diseinu, planifikazio, esku-hartze eta ebaluazio lan guztietan. Azken helburua izango da garapen integrala bultzatzea, generoaren araberako estereotipo eta rolak baztertuko dituen eta baita bereizkeria mota oro ere. Prozesuan genero berdintasuna kudeatzeko planteamendua egin beharko da.

Inklusioa:

Erabiltzaileen aniztasuna kontuan izango da (adina, sexua, jatorria, sinesmena, gaitasuna, etab.) eta tratu eta aukera berdintasuna bermatuko da. Zerbitzuan arreta berezia eskainiko zaie zailtasunak edo behar bereziak dituztenei (gizarte zailtasun egoerak, aniztasun funtzionala, jatorriz beste kultura batekoak direnak,...). eta horretarako, aniztasunaren kudeaketarako planteamendua egin beharko da.

Euskara:

Euskara izango da lan eta zerbitzu hizkuntza.

Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: langile elebidunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazioa, etab. Herritarren hizkuntza eskubideak kontuan hartuta, hizkuntzen kudeaketako planteamendua egin beharko da.

Horretaz gain, emaitzari begira kudeaketa-koordinazio hauek burutu beharko ditu azpikontratutako aholkularitzak.

- Komunikazio planaren diseinua lantzea, kontratuaren objektu diren eginkizunak aurrera eramateko jarraitu beharreko prozedurak, edukiak eta metodologia behar bezala definitzea.
- Plangintza hori prozesua abiatu aurretik zuzendaritza teknikoari entregatzea.
- Prozesuaren mugari bakoitzean adostutako emaitzak eta entregagaiak bulego teknikoaren esku jartzea. Horiek, aldez aurretik definituta egongo dira bulego teknikoarekin batera.
- Proiektuaren gobernantza eta koordinazio guneetan parte hartzea.
- Aldez aurretik finkatuta egongo diren balorazioak eta, eta bestelako ebaluaziorako ebidentziak jasotzen laguntzea.
- Bi hizkuntzen kudeaketarako planteamendua egitea.

4. Prozesuaren dataz, koordinazio eta jarraipenaz

Epe labur eta estuetan egiten den lan konplexua izanik, proiektuaren arduraren teknikoa eta aholkularitzaren arteko koordinazioa oso estua izan beharko du.

Kontuan hartuz aurreikusitako beheko kronograma, enpresak bere eskaintza bitartez gutxienez beheko epeak betetzeko konpromezua adierazi beharko du, baita kronogramak izan ditzakeen aldaketei erantzuteko aukerak ere.

DELIBERAZIO PROZESUA	URTA	OTS	MART	APIRI	MAIAT	EKAIN
0.Urratsa. - Behin betiko komunikazio diseinua onartzea eta plangintza zehatza ixtea. – Marka proposamena egitea.		x				
1.Urratsa. Komunikazio euskarriak sortzea		x	x	x	x	x
2. Urratsa. Prozesua abiatzea – prozesuaren eragileekin batera gizarteratzeko ekitaldi-jarduera zehatza* Prozesuaren gizarteratzearen lehenengo ekintza bezala aurreikusten da prozesuari		x	x			

atxikitu zaien erakundeekin ekitaldi irekia egitea (horrek emango lioke hasiera prozesuaren gizarteratzeari).						
3. Deliberazio prozesuaren faseak gizarteratzea: - Mahai sektorialak			x	x		
	UZT	ABUZ	IRAIL	URR	AZARO	ABEND
4. Herritarren Batzarra			x	x	x	
5. Mandatu organoak erantzuna ematea - GIZARTERATZEA						x

5. **Esleipen irizpideak**

5.1. PROPOSAMEN TEKNIKOA

Aurkeztutako proposamen teknikoaren kalitatea baloratuko da modu honetara.

Gehienez 80 puntu

a) Proiektuarekiko kokapena, planifikazioa eta helburuak (gehienez 15 puntu)

1. Proiektuaren markoa, helburu zehatzak eta egitekoetan zehazten diren jarduerak modu egokian erlazionatzea (5 puntu).
2. Eginkizunak aurrera eraman eta helburuak epean betetzeko zerbitzuaren plangintza eta beharrezko kronograma (5 puntu).
3. Proiektuaren fase ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea (5 puntu).

b) Lan-metodologia (gehienez 25 puntu)

1. Kontratuaren objektu diren eginkizunak aurrera eramateko jarraitu beharreko prozedurak eta jarduera arlo bakoitza nola landuko den zehaztea (10 puntu).
 - Jarduera arlo bakoitzean nola landuko den zehaztea (5 puntu).
 - Publiko irekiaren parte hartzea sustatzeko proposamenak (5 puntu).
2. Prozesuaren antolaketa eredura egokitzeko, gune edo eremu desberdinekin elkarlan eta koordinatzeko modu egoki eta zehatza planteatzea (10 puntu).
3. Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea (5 puntu).

d) Lan taldea (gehienez 15 puntu)

- 1- Esperientzia (10 puntu):
 - Deliberazio egitasmo ordezkatzailleko zozketa zibikoetan (5 puntu).
 - Parte hartze prozesu zein ekimenetan (5 puntu).
- 2- Taldearen osaera: proiektuaren bermerako parte hartuko duten pertsona-kopurua eta eginkizunen (koordinazioa, teknikari lanak...) planteamendua (5 puntu).

e) Proiektuaren kalitatea bere osotasunean (gehienez 10 puntu)

f) Hobekuntza proposamenak (gehienez 15 puntu)

Aurrez zehaztutakoaz gain, zerbitzuko lana hobetzeko, osatzeko, proposatzen diren bestelako baliabide, koordinazio, euskarri digital zein sare sozialen erabilerarako proposamenak etab.

5.2. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Gehienez 20 puntu

Eskaintza ekonomikoarekin batera, eskaintzaren banakatzea aurkeztu beharko da ondorengo atalen baitan baloratzeko:

- Eskaintza ekonomikoak jasotzen dituen ekintzak.
- Proposatutako euskarri zein baliabide zehatzen proposamena (aurrekontuan sartzen eta, sartzen ez direnak zehaztuz).

6. Aurrekontua

Zerbitzua aurrera eramateko gehieneko kostua 50.000 € gehi BEZa, emale enpresaren eskutan geratuko diren azpikontratazio lanak bane.

7. Proposamenak aurkezteko gehieneko epea

Gonbidapena jasotzeko azken eguna, urtarrilak 20, helbide honetan: deliberazioa@gizabidea.net

Dokumentu honen inguruan edozein zalantza izanez gero, prozesuaren arduradun teknikoarekin argitu ahal izateko gonbidapena luzatzen da.

Arrasaten, 2024ko abenduaren 17an



GIZABIDEA FUNDAZIOA